

GAUEKO AUTOBUS ZERBITZUA

Udaran gaueko autobus zerbitzua ostiral eta larunbatetan izango da

■ Zerbitzu berria datorren ostiralean jarriko da martxan eta eta irailera arte segiko du ■ Areizaga autobusak ordu eta erdiro ibiliko dira, Garayarrekoak berriz ordubetero.

UDARAN sartu garen honetan, Hernanitik Donostia eta Urnietara joateko gaueko autobus zerbitzuak eskaintza zabaldu egin du. Lehen larunbat gauean bakarrik izaten zen eta hemendik aurrera, ostiral eta larunbat gauean izango da.

Gaueko autobus zerbitzu hori, autobus konpainia eta Diputazioaren arteko elkarlanaren ondorioa da.

Uztailaren 5ean, datorren ostiralean, jarriko da martxan zerbitzu berria eta irailaren erdira arte iraungo du hasiera batean. Prezioa ere orain artean bezala mantenduko da, euro bat.

Autobusen erabilpena

Autobus konpainien esanetan, orain arte gaueko zerbitzua ondo joan da nahiz eta ekaina hasiera eta erdi aldera pixka

bat jeitsi den. Orain jaiekin batera erreperatu dela adierazi diote Kronikari. Hala ere, jendeak oraindik ere kotxea hartzeko ohitura duela azpimarratu dute autobus konpainiek.

Ordutegiari dagokionez, 03:00ak eta 04:00etako autobusetan ibiltzen da jende gehiena Autobusa erabiltzen duen jendea, berriz, 20 urte-tik gorakoa da gehiena. □

AUTOBUS ZERBITZUA

GARAYAR


-Urnietatik-Donostia: 23:00etatik 06:00tara.

-Donostiatik Urnietara: 23:30etatik 06:30etara. (Ordubetero)

AREIZAGA

Hernanitik Donostia: 23:45, 01:15, 2:45, 4:15, 5:45.

Donostiatik Hernanira: 23:15, 00:45, 02:15, 03:45, 05:15.



Patxi Apezetxea, zuzendaria.

HERNANI INSTITUTUA

Batxiler eta Zikloak egiteko matrikula bihar zabalduko da

AURREKO hilabeteetan datorren kurtsorako Batxiler eta Formazio Zikloetan inskripzioak eta aurrematrikulak egin dira. Orain ordea matrikulatzeko epea ireki da. Astelehenean ostiralera batxiler eta formakuntza zikloetan matrikulatzeko aukera izango da, uztailaren 1etik 5era.

Hernani Institutuak Kronikari adierazi dionez, bai edozein Batxilerretan eta bai edozein Ziklotan matrikulatzeko Agustín Iturriagan edo Karmelo Labakan eman liteke izena. □

ARRAUNA

Hernani-Ubis Donibane Lohitzunen

HERNANI-UBISEK, Donibane Lohitzuneko bandera jokatuko du gaur. Goizeko 11:30etan hasiko da eta Hernaniko taldea lehenengo tandan izango da Zarautz, Ur-Joko eta Fortunarekin batera. Taldea osatzeko arazoak izan dituzte hernaniarrek, lesionatuta edota gaixo dauden zazpi bat arraunlariren baja baitute.

Bestalde, datorren astean Euskal Ligarako sailkapena jokatuko da Pasaian. □

Jubilatuentzat mantenimendu gimnasia

■ Datorren kurtsorako apuntatzeko epea Uztailaren 1etik 6ra arte egongo da zabalik.

AURTEN bezala, datorren irailatik aurrera jubilatuak mantenimendu gimnasia egiteko aukera izango dute.

Izena emateko epea bihar zabalduko da eta gimnasia egin nahi dutenek Jubilatu Etxeko ofizian apuntatu beharko dute, uztailaren 6a bitartean. Kurtso osoarako inskripzioa 18 euro da.

Datorren kurtsua irailaren 23an hasiko da, eta astean hiru egunez izango da: astelehen, asteazken eta ostiral goizetan. Jende asko bada, bi txanda egiten dira.

Gimnasia egin nahi duten guztiek derrigorrezkoa izango dute mediku azterketa bat egitea, gimnasia egiteko kondiziotan daudela erakusteko. □



Jubilatuak mantenimenduko gimnasia egiten kiroldegian.

Bihartik aurrera...
MERKEALDIAK
YONE
boutique
Kale Nagusia 63
-Hernani-
Hipodromo etorb.
-Lasarte-

ZUMARDI
ORDUTEGI BERRIA
Astelehenean igandera eguerdian zabalik.
Osteguna, ostirala eta larunbatetan gauean ere zabalik.
Orkolaga 2 A - Tel. 943 33 60 56
www.zumardi.com / info@zumardi.com

SANTA BARBARA
PEUGEOT
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu

● Peugeot 306 - HDI,	aire egokitua	SS-BF
● Peugeot 205 - 1.4,	5 ate	SS-AV
● Opel Astra Caravan - 1.6		NA-AK
● Citroen AX - diesela,	5 ate	VI - L
● Opel Corsa - 1.2	5 ate	SS-AK
● SEAT Ibiza - Diesela	3 ate	SS-AJ
● Volkswagen Polo - 1.3	3 ate	SS-AJ
● Ford Escort	Diesela	SS-AC

....eta hainbat kotxe merke.

■ ERRUGBIA - Euskal Herriko 7x7 Torneoa



Bizkaiaiko selekzioa gustora Landaren, Euskal Herriko Torneoa irabazita.

Bizkaia Euskal Herriko txapeldun

■ Eguraldi txarra eta giro tristeantza izan zen Landaren, 7x7 Torneoa

EUSKAL Herriko 7x7 Torneoa jokatu zen atzo Hernanin: zazpi herrialdeetako selekzioak eta *Euskarians* euskal selekzioa. Txapeldunak bizkaitarrak izan ziren, eta dezente errez gainera. Hasieran zortzi taldek jokatu behar bazuten

ere, Araba ez zen etorri. Goizean kanporaketak jokatu ziren eta arratsaldean finala. Bukaeran, Bizkaia eta *Euskarians*ek lagunarteko partidua jokatu zuten.


Berez, torneo polita izanagatik eguraldiak ez zuen la-

gundu eta giroa ere ez zen punta-puntakoa izan.

3 hernaniar torneoan

Hiru hernaniarrek jokatu dute 7x7 Torneoa. Bik *Euskarians* taldean eta beste batek Gipuzkoako selekzioan. □

■ FUTBOLA - 'KOLONBO' GIPUZKOAKO DELEGATU ONENA



Jose Mari Mendizabal Kolonbosaria eskuan duela Laurentzi Gana Euskadiko Federazioko Lehendakaria (ezkerrean) eta Juan Luis Larrea Gipuzkoako Federazioko Lehendakariaren artean.

Kolonbo: 26 urte CD Hernanin lanean

JOSE Mari Mendizabal *Kolonbo* Gipuzkoako Delegatu onaren saria jaso zuen atzo, Bergaran. Saria Gipuzkoako Futbol Federazioak eman zion,

Urteko Asanblean. *Kolonbo* 10 urte daramakizki Delegatu eta 26 CD Hernanin lanean. 16 urte zituela hasi zen eta oraindik lan eta lan segitzen du.

Saria jaso ondorenean, *Kolonbo* Kronikari aitortu zion ez zuela halakorik espero. Hala ere, garbi utzi du sariak poz handia eman diola. Zorionak! □

INFORMATIKA ARETOKO IKASTAROAK

Windows 98 + Word 2000
Uztailaren 15-tik 19-ra.
Ordutegia: 9-tik 13-ra.

INTERNET-a
Uztailaren 22-tik 26-ra.
Ordutegia: 9-tik 13-ra.

Informazioa:
Larramendi 11, beheara. Tlf: 943 551000
Ordutegia: 9-tik 14-ra.

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatua

LAND-ROVER

Gipuzkoarako eskusiban **LAND ROVER** kontzesionario ofiziala.
EUROLAN 4 x 4 (VOLVO ondoan) - ☎ 943 33 10 06

■ HITZ BITAN

✓ GIMNASIA

Jaione Tejedor Espainiako Txapelketara. Euskadiko Txapelketan, taldeka hirugarren lekuan geratu ondoren, Espainiako Txapelketa jokatzera joango da Jaione Tejedor hernaniarra. Espainiako Txapelketa uztailaren 4 eta 7 artean jokatu da, Argandan (Madril).

✓ MENDIRIZ MENDI

Uztaileko irteerak. Uztailaren 6 eta 7ko asteburuan Estarange (3.006m) eta Campbieil (3.173m) mendiak igotzeko irteera egingo da, Frantziara. Uztailak 25 eta 28ko asteburuan beriz, Sierra de Gredosera izango da irteera.

✓ UDAL INFORMATIKA ARETOA

Udaran goizetan zabalik. Udaleko Informatika Aretoa (IMI) udaran ordutegi berria izango du. Asteaz goizeko 09:00etatik 14:00etara egongo da irekita eta larunbatetan itxita egongo da.

✓ EHIZA

Muestrako ehiza-zakur txapelketa Xoxokan. Gaur jokatu da Txantxangorri elkarteak antolatu duen ehiza-zakur Txapelketa. Xoxokan izango da goizeko 09:30etan hasita. Txapelketa Gipuzkoa mailakoa da eta zakur kontinental eta bretoiak aterako dira. Apuntatzeko: 09:00-09:30.

✓ LIBURUTEGIA

Udarako ordutegi berria. Udararen liburutegiak ordutegi berria izango du. Goizeko 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik, larunbatetan itxita egongo da.

✓ ODOL EMALEAK

Asteartean odol emateko eguna. Hilero bezala, hileko aurreneko asteartean tokatzen da odol ematea. Odola ematea anbulatorioan egiten da, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara. □

📄 JASOTA BEZALA

OSTIRALEKO Kronikan irakurri dugunez, osteguneko Plenuan 'Batasuna bakarrik' omen zan. Guk dakigula, ordea, Alkateak bezperan aterako Bandoaren bitartez Plenua suspenditu egin zuen. Honela esaten zuen modu zehatzean Bandoak: "Hernaniko Udalarri dagokionez, Gobernu batzordea, Udal Osoko Bilkura eta gainontzeko ohiko jarduera politiko horren adierazleak diren bilkurak ez dira egingo egun

hauetan". Gauza normalena da, beraz, guk egin genuena, ez daukagu eta suspenditu egin diran eginkizunetara joateko inolako ohiturarik. Plenua deitu, bezperan suspenditu eta azkenean ospatu. Hau konpreni lezakeena Hernanin eztago. Baina, gertatutakoak argi adierazten du Udala anormaltasunaren bitetik daramala aspaldi honetan Batasunak.

EA-EAJ

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 006666
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087
▶ Gauez: Gorospe
Andoain. Rikardo Arregi 12
☎ 943 592415

Umeen sekzioan
% 50 arte

valer

Bihartik aurrera:
MERKEALDIAK

Bisita itzazu gure bi dendak:
Latxunbe auzoa 5 - Zikuñaga auzoa 38

ARALAR TABERNA

Zapa 8 - 943 33 15 06